

Herriko kontseiluaren 2015/02/20ko bilkura

Hastapena : 20:40

Hor zirenak: Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Bernadette Mousquès, Betti Bidart, Isabelle Arangoits, Frantxoa Mocho, Annie Juantorena, Betti Olçomendy, Monika Indart, Eñaut Larre, Agnès Gorostiague, Sébastien Clauzel, Jean-Baptiste Lambert, Marie-Baptiste Etcheverry.

Ezin jina jakinarazi zutenak: Christelle Errecart (ahalordea Marie-Baptiste Etcheverryri emanik), Dominique Mendibil (ahalordea Jean-Baptiste Lamberteri emanik).

Gai zerrenda :

1. 2014ko kontu administratiboan bozkatzea: Noblia andere zerga biltzaileak kontseiluari kontu administratibo osoak presentatu dazko. Orotarat, 3 909 911,72€ko gastuak eta 4 003 745,13€ko sartzeak badira emaitza nagusian. Emaitza positiboak ere dira eskolen kutxaren, uraren konpainiaren, ur garbitzeko lekuko zerbitzu publikoaren eta Geltokiko lotizamenduaren kasuetan.

Hor ziren Herriko kontseiluko kideek aho batez ontzat eman dituzte 2014ko kontu administratiboak, eta gero Diruzaintzako zerbitzuek presentatu kudeaketa kontuak.

2. 2015eko DETR deliberamendua : Baserrialdeko Lurraldean Ekipamendu Dotazioa (*DETR*) Estatuaren dotazioa da. Herriko Etxearen berritzeko proiektuarendako eskatu nahi dugu. Herriko Etxearen berritzeko proiektua kariotua izan da : ahalmen urriko sartzeko maneraz gain, teilatupearen baliatzea pentsatua da, ospakizun salaren haunditzea, Turismo Bulegoaren zolaren azkartzea, elkarteendako sala berri baten egitea, igogailu baten eraikitzea. Lanak 2015eko buruileko programatuak izan behar dira dotazio horren eskuratzeko. Bastimenduaren egitura sana da, kanpoko itxura ez da hunkia izanen. Orain, proiektua 516 446€takoa da.

Herriko kontseiluak aho batez *DETR* dotazioaren eskatzearen alde bozkatzen du.

3. Hirigintza Tokiko Planaren (PLU) aldatzea eta berrikustea : Berrikusi baino lehen ere, aldatzen ahal da ; lehengo harrobiko ofiziale eremuaren kasuarendako arazo bat bada, Natura 2000 eremuan baita, begiratu behar diren espezieekin : zundaketa bat egin behar da.

Herriko kontseiluak, aho batez ken abstentzio bat, *PLU* planaren aldatzearen alde bozkatzen du, haren berrikustea hasi baino lehen.

4. APGL zerbitzuarekilako hitzarmena : bertzalde, herriko kontseiluak aho batez bozkatzen du *APGL* zerbitzuarekilako hitzarmenaren alde (*APGL* Lekuko Kudeaketako Agentzia Publikoa da, erran nahi baita *PLU* planaren aldaketa bere gain hartzen duen zerbitzua).
5. Trinketeko obrak : Aldamia ez baita lekuan, ez da deliberatzerik. Deliberoa berantagoko utzia da.
6. LITT faktura (MSP diziplina anitzeko osagarri etxeko panelak) : Oloroeko MP enpresarekilako egin kontratua ezeztatua izan da 2015eko urtarrilan. Diziplina anitzeko osagarri etxeko sabai izunendako panel multzo bat manatua zuen. Herriko

Etxeak erosi behar izan ditu rugentziaz, obren finitzea bere gain hartu duen enpresari gero ezarrarazteko.

Herriko kontseiluak aho batez bozkutzen du LITT panelen pagatzearen alde.

7. Geltokiko biribilgunearen argitzeko proiektuaren diruztatzearen onartzea : Geltokiko biribilgunea argitu behar da : aparkalekuan karrika-argi bat ezarriko da, eta inguruan, 5 ganderailu. Orotarat 24 016€ gostako da (herriaren parte hartzea : 8 815€).

Herriko kontseiluak aho batez alde bozkutzen du.

8. Traktore baten erostea : Bide obra haundiak egitekoak dira. Traktore baten erostea premiatsua da eta herriko langileendako beharrezkoa. Traktore bat erosi baino lehen, bilkura bat egin da enpresa batekin, xehetasun tekniko batzuen ezagutzeko (hutsik 4,5t pisu duen traktorea, abiadura aldagailu robotizatua, FOPS-ROPS kabina gaina, ardatzen arteko 2,45m-ko tarte, 5m-ko helmeneko *épareuse* tresnarekin eta paralelogramoko kargagailu batekin). Egin beharreko lanak urtean 700 orenetan estimatuak dira. Hortik heldu da traktore berri baten erosteko ideia. Traktore berri batendako, eskaintza deialdiaren ondotik, beha egoiteko epea 3 hilabetekoa da. Bertzalde, bi herriko langile interesatuak dira, iduriz, *épareuse* tresnaren eta mini-palaren erabiltzeko formakuntzaren segitzeko. Inguruetako herriekin mutualizatzea ere pentsatzen ahal da, haien beharren arabera.

Herriko kontseiluak traktore baten erosteko printzipioaren eta eskaintza deialdia egitearen alde bozkutzen du.

9. Pilota plazaren berritzea : Jaun auzapezak jakinarazten du Durruty enpresak 2013an burutu obrak ez direla satisfagarriak izan. Gainerat, herria ohartu da drainatze lan bat ez zela egin izan eta beharrezkoa zela. Eztabaida bat hasia da Durruty enpresarekin. Akordio bat hitzartu da : herriak ditu drainatze lanak pagatuko (13 000€ zergak barne, edo *TTC*), Durruty enpresak lur-arrasezko zolaren berritzea pagatuko du.

Bertzalde, pilota plazaren pareta berritu behar da, juntura batzuk ez baitira ontsa kausituak izan (pilotak biziki fite higatzen dituzte).

Herriko kontseiluak aho batez bozkutzen du obrak hastearen alde.

10. Larrazkenako tindu lanaren debisa : Jaun auzapezak kontseiluari jakinarazten dako adindunen etxearen obren bigarren parte bat egin behar dela (Iparra eta Mendebaldea). Eskaintza deialdi bat egin da, bi ofizialek ihardetsi dute. Mendibil : 29 652€ (zergarik gabe, edo *HT*), Alfaro : 30 656€.

Kontseiluak Mendibilen alde bozkutzen du, aho batez.

11. Uraren prezioa : Drainatze lanaren abiatzeko Kontseilu Nagusiaren diru laguntza baten eskuratzeko dretxoaren ukaiteko, uraren m³-ko prezioa 0,65€-tik (zergarik gabe, edo *HT*), 0,75 €/m³-ko preziorat igan beharko litzateke. Dotazio haundiak izanki, drainatze lanaren proiektuko 540 000 €en % 20, alde bozkatu beharko litzateke, gainerat Baigorriin uraren prezioa apala baita bertze batzuekin konparatuz eta aspaldi ez baita emendatua izan.

Herriko kontseiluak, aho batez ken kontrako boz bat eta abstentzio bat, uraren prezioaren emendatzearen alde bozkutzen du.